

» KONTZERTUA

Kalitate gorena



Montserrat Auzmendi del Solar

Gabonetan turroiekin gertatzen den bezala, santu guztien egunaren inguruan badugu musikazaleok hitzordu garrantzitsu bat: Tolosako Abesbatza Lehiaketa hain zuzen ere. Aurtengo edizioa bereziki interesgarria izan da, arrazoi askorengatik: alde batetik, 50. edizioa izan da, eta urteurrena ospatzeko hainbat kontzertu berezi antolatu dituzte, batzuek merezi izan dute eta beste batzuek ez hainbeste, dena esan behar da; bestetik, aurten entzun ditugun abesbatzen kalitatea zinez altua izan da, eta horrek bai ematen diola prestigioa holako jaialdi bati.

Mundu osotik etorritako hamasei koruk hartu dute parte aurtengo lehiaketan eta, esan bezala, maila altua erakutsi dute orokorrean. Halere, hasieratik deigarriak suertatu ziren Ukrainatik zetorren Orea abesbatzaren eta Letoniako Kamer Koris taldearen aktuzioak, perfekzio tekniko handikoak eta, aldi berean, orijinalak beren planteamenduetan. Ez ginen harritu, ba, bi abesbatza hauek finalean ikusi genituenean, Suediako Sr Jacobs Vokalensemble eta Indonesiako Batavia Madrigal Singers taldeekin batera. Izan ere, azpimarratu ditut ekialdeko bi taldeen lan zoragarriak, baina aitortu behar dut txundituta utzi ninduela abesbatza indonesiarrek, batez ere finalean izandako aktuzio distiratsuan. Oso lan konplikatuak izan zuten nazioarteko epaimahaiak, lau talde horiek erabat erakargarriak eta perfektuak dirrelako, baina oso desberdinak. Indonesiakoez sonortate inguratzaile eta musikaltasun aparta zituzten; Suediakoen indarra, berriz, doitasun teknikoak zen, eta, Ukrainako eta Letoniako

50. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Urriaren 31tik azaroaren 4ra arte.
Tolosako Leidor Antzokia.

taldeen obrak lantzeko modu berezi eta fina deigarria zen. Azkenik, Letoniako Kamer Koris taldeak publikoaren sariarekin batera, 50. Tolosako Sari Nagusia irabazi zuen. Oso merezita. Sari berezi batzuk ere banatu ziren: Programa Onenaren Saria Suediako taldeak eraman zuen; Zuzendari Onenaren Saria etxean geratu zen, Gabriel Baltes tolosarrak (Kup Taldearen zuzendaria) eskuratu baitzuen; Lan onenaren saria Alemaniara joan zen Arnold Schönbergekek idatzitako *Friede aur Erden* lanaren interpretazioarengatik eta Euskal Abesti Baten Interpretazio Onenaren Saria Asturiaseko El León de Oro abesbatzak lortu zuen, Javier Bustoren *Bidasoa* lanaren interpretazioarengatik. ■

Letoniako Kamer Koris taldea. 50. urteurreneko Tolosako Abesbatza Lehiaketako Sari Nagusia eta publikoaren sariaren irabazlea.

